

GIL 129 Urizaharreko anbar-hobiak



Urizaharreko anbar-hobi nagusia eta sartzea debekatzen duen kartela.

Kokapena

rabako Natura Zientzien Museoa..

GILaren deskribapen laburra

Urizaharreko anbar-hobi intsektuduna munduko garrantzitsuenetako bat da espezie-kopuruari eta dibertsitateari dagokienez; gainera, Kretazeoko anbar-hobiak, Urizaharrekoa den bezala, bost baino ez dira mundu osoan.

GIL honetan deskribatutako azaleratze nagusia harrobi bat da, non buztin beltz eta harea ikazdunak azaleratzen baitira. Haien barnean barreiatuak, anbar-zatiak daude. Zatiaren tamaina, morfologia, kolorea eta gardentasuna oso aldakorra da. Orain arte, aztarnategi horretako 2.000 intsektu-inklusioren gora aztertu dira; haietatik, ia % 80 dipteroak (euliak eta eltxoak) eta himenopteroak dira (inurriak eta liztorrak). Badira, halaber, landare-arrastoak eta hegaztien edo dinosauro hegaztien lumatxak.

Azterketa stratigrafikoek eta analisiak anbararen jatorria argitu dute: ibai-korronteek araucariazeoen erretxina fosila garraiatu, eta ertzetako badietako giroetan metatu zuten.



Urizarharreko anbarean aurkitutako intsektuetako baten xehetasuna. Arabako Natura Zientzien Museoan dago ikusgai (Arillo & Mostovsky, 1999) (Argazkiaren iturria: ENRESaren *Patrimonio geológico de Asturias, Cantabria y País Vasco* liburua).

Aztarnategia monumentu-multzo izendatu du Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, eta hesi batez itxita dago. Alerik onenetako batzuk Arabako Natura Zientzien Museoko areto berezi batean erakusgai daude, Gasteizen.

Behatzeko punturik onena

Arabako Natura Zientzien Museoa, Gasteizen.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 10, GIL 51, GIL 74, GIL 122, GIL 128.
- **Gaiari dagokionez:** Ez dago.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa			●	
	Paleontologikoa				●
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:	Gaur egun, Urizaharren eskuratutako fosil-bilduma Arabako Natura Zientzien Museoa dago, Gasteizen.				

Bibliografia espezifiko

- MAGNA, 170. zk.
- EVE, 170-I zk.
- Martínez-Torres, L. M. (1984). *Geología de la Sierra Cantabria entre Palomares y Toloño (Alava)*. Arg.: Argitalpen Zerbitzua. Arabako Foru Aldundia, Gasteiz. 91 or.; mapa bat 1:25.000 eskalan. ISBN: 84-505-0480-5.
- Martínez-Torres, L. M. (1997). *Transversal a la Cuenca Vasco-Cantábrica. Introducción a la estructura y evolución geodinámica*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 121. or. ISBN: 84-7585-927-5.
- Martínez-Torres, L. M. (1993). "Corte balanceado de la Sierra Cantabria (Cabalgamiento de la Cuenca Vasco-Cantábrica sobre la Cuenca del Ebro)". *Geogaceta*, 14, 113-115.
- Martínez-Torres, L. M. (2003). "Introducción al proyecto Ámbar-2000". *Estudios del Museo de Ciencias Naturales de Alava*, 18. liburukia, zenbaki berezia 1, 7-8.
- Martínez-Torres, L. M.; Pujalte, V. eta Robles, S. (2003). "Los yacimientos de ámbar del Cretácico Inferior de Montoria-Peñacerrada (Álava, Cuenca Vasco-Cantábrica): estratigrafía, reconstrucción paleogeográfica y estructura tectónica". *Estudios del Museo de Ciencias Naturales de Alava*, 18. liburukia, zenbaki berezia 1, 9-32.
- Larrasoña, J. C.; Garcés, M. eta Martínez-Torres, L. M. (2003). "Estratigrafía magnética de los yacimientos de ámbar de Montoria-Peñacerrada (Álava; Cuenca Vasco-Cantábrica)". *Estudios del Museo de Ciencias Naturales de Alava*, 18. liburukia, zenbaki berezia 1, 33-48.
- Larrasoña, J. C.; Garcés, M. eta Martínez-Torres, L. M. (2005). "Los yacimientos ambarígenos del Cretácico Inferior de Sierra Cantabria (Peñacerrada, Álava)". *SEPAZ*. Arg.: Melendez, M. eta Moreno-Azanza, M.; 81-142. or.
- Martínez-Torres, L. M.; Alonso, J. eta Valle, J.M. (2011). "The Upper Aptian-Lower Albian Amber Deposit of the Peñacerrada II Geosite (Basque Cantabrian Basin, Northern Spain): Geological Context and Protection". *Geoheritage*, 3. liburukia, 1, 55-61. DOI: 1007/s12371-010-0030-9.